

ASKORA PLUS SL:

MAHI-MAHI by Askora: Balioak elikatzen urtean 175 egunetan



Iratxe Casado
admin@askora.com
943317036

<https://www.askora.com/eu/askora-mahi-mahi/>



Jarduera: Askora elikadura-, zaintza- eta garbiketa-zerbitzuen enpresa bat da, kolektiboei zuzendutakoa, hezkuntza arloan, enpresetan eta zentro soziosanitarioetan.



Sektorea: Sector servicios



Enplegatutako pertsonen kopurua: 561



Lokalizazioa: Portuetxe kalea, 16, piso 2, oficina 4, 20018, Donostia - San Sebastián, Gipuzkoa

NAZIOARTE mailako berrikuntza ERRADIKALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Jantokietan eta eskola-jolastokietako kudeaketa, pedagogia eta hezkidetzako zerbitzu guztiz berritzailea delako; esperientzian oinarritutako irakaskuntzaren kudeaketa-eredu berriekin bat egiten du, autonomia eta balio-hezkuntza bilatzen du. Zaintzaileen rola aldatzea proposatzen du eta ikasleen garapena, gizarte-kontzientzia, iraunkortasuna, berdintasuna... sustatzen ditu. Horrez gain, lankidetzaren handiko praktika da, eta espazioak eta esperientziak ikasleekin, familiekin, irakasleekin, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta Mahi-Mahi taldearekin batera sortzen dira.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Askora elikadura osasungarrian eta pertsonentzako arreta- eta zaintza-zerbitzuetan espezializatutako enpresa da, eta oso kontzientziatuta dago gizarte-erronkekin, hala nola genero-berdintasuna, kontziliazioa, euskararen erabilera edo hondakinen murrizketarekin.

2016an, Askoraren izaera berritzailearen eta konprometituaren ondorioz, Mahi-Mahi by Askora sortu zen, eskola-jantokien eta jolastokien kudeaketan gaur egun arte zegoen guztiaren oso bestelako eredu. Eskolako ohiko jantokia leku eta une berezi bihurtzen da, non ikasleek, modu osasungarrian jateaz gain, esperientzia dibertigarria eta hezitzailea duten. Jantokiko langileen eta umeen rolak, baita espazioa bera ere, eraldatu egiten dira esperientzia berriak sortzeko. Esperientzia horiek, ikastetxetako eredu pedagogiko berriekin batera, ikasleen garapenean lagundu, balioak transmititu eta beren autonomia garatzen dute.

Mahi-Mahik dinamikak garatzen ditu jantokietan lankidetzaren, begirunea, berdintasuna, jasangarritasuna, kontsumo arduratsua, aniztasuna eta bizitzaren beste hainbat alderdi lantzeko. Dinamika horiek, gainera, jarraipena dute jolastokian, helburu berarekin diseinatutako jarduerak eta tailerrekin. Mahi-Mahin, aldian-aldian, jatorri eta herrialde desberdinetako janariak prestatzen dira, janaria zapora berriak eta beste kultura batzuk ezagutzeko bitartekoa baita.

Ikasturtean zehar, Mahi-Mahi jangela eta jolastokiaz gozatzen duten ume guztiek rol parte-hartzailea eta aktiboa hartzen dute zerbitzuaren garapenean, eta ohiko etxeko-lan batzuk egiten dituzte, hala nola mahaia jartzea, lankideei janaria zerbitzatzeko, mahaia jasotzea eta ingurunea erabili ondoren garbitzea. Jarduera horiek guztiak berdintasunaz, partaidetaz, erantzunkidetasunaz eta bizikidetzaz jabetuta egiten dira, gure gizartean hain errotuta dauden arreta eta zaintza feminizatuaren estereotipoetatik ihes eginez.

Mahi-Mahi by Askora oinarri berdinen gainean eraikitako eredu da, baina Mahi-Mahi jantoki guztiak desberdinak dira, zentro bakoitza ezberdina delako. Inplikaturako eragile guztien beharrak eta nahiak asetzen dituen zerbitzua lortzeko oinarria baterako sorkuntza da; horregatik, saioak egiten dira familiekin, ikasleekin, irakasleekin, begiraleekin eta Mahi-Mahiko diziplina anitzeko taldearekin (nutrizionistak, UX designers, pedagogoak eta arkitektoak) batera egiten dira saioak. Gainera, Mahi-Mahi Fanzine Digital buletinaren bidez esperientzia guztiaren berri ematen da. Bestalde, ikastetxetik kanpo, Mahi-Mahi Etxean Askora-ren talde pedagogikoak jarduerak proposatzen ditu familian ondo pasatzeko, betiere hezkuntzaren ikuspegitik.

Aurrekariak

Mahi-Mahi sortzeko ideia 2015ean hasi zen; izan ere, Askorak ikusi zuen eguerdiko jantokien eta aisialdiaren kudeaketa-zerbitzuak zaharkituta zeudela, ez zirela erantzuten ikastetxeen errealitateari eta beharrei. Askorak, orduan, eskola-jantokiak ikuspegi askoz gizatiarrago baterantz berrasmaketa erabaki zuen; eredu horren arabera, umeen bizipena elikadura bezain garrantzitsua da, eta esperientzia dibertigarria eta hezitzailea izateaz gain, ikastetxe bakoitzaren helburu pedagogikoekin bat dator.

Erronka

Erronka nagusia jantokia eta jolastokia kudeatzeko eredu berritzaile bat sortzea da. Eredu hori bizia eta eraldatzailea da, bat egiten du ikastetxe bakoitzaren plan pedagogikoarekin eta umei esperientzia aberasgarriak eskaintzen dizkie urtean 175 egunetan. Bigarren erronka da berrikuntza hori ikastetxetan balio emateko proposamena izatea, eta ikastetxeek bereganatzea espazioak eta esperientziak elkarrekin sortzeko parte hartuz.

Ekintzak

1. EAEko eta Europako beste herrialde batzuetako ikastetxeen egoeraren eta jantoki-zerbitzuen azterketa eta behaketa.
2. Hobekuntzak identifikatzea eta lortu beharreko helburuak zehaztea: eguerdiko zerbitzuak ikasteko eta dibertitzeko une eta gune izatea, zerbitzu horiek ikastetxeko plan pedagogikoarekin bat etortzea, zerbitzuko langileen eginkizuna aldatzea eta esperientzia-ikaskuntzaren bidez balioetan oinarritutako garapena eta prestakuntza sustatzea.
3. Barne mailan, plantillan profil berriak sartzeko: pedagogoak, design thinkers eta adituak erabiltzailearen esperientzian.
4. Baterako sorkuntzan oinarritutako zerbitzu berritzaile baten kontzeptua sortzea (Askora, zentroko zuzendaritza, jantokiko langileak, familiak eta umeak).
5. Fase pilotua: eredu zentro batzuetan ezartzea.

6. Fase pilotuaren amaiera eta ezarriko den ereduaren definizioa:

- a) Eredua zentro bakoitzarekin batera diseinatzea, zentroaren beharrezan araberak.
- b) Espazioaren erreforma, jantokien aldaketa estetikoa, funtsezkoa baita dinamikak sortzeko. Askorak inbertsio horren finantzaketan laguntzen die zentroei.
- c) Jantokiko arduradunei zuzendutako prestakuntza; pertsona horiek funtsezkoak dira jantokiaren aldaketan eta daukaten eginkizunak ez dauka zerikusirik ordura arte eduki dutenarekin.
- d) Esperientzia bakoitzaren baterako sorkuntza, materialak sortzea (jolasak), informazio- eta komunikazio-euskarriak.
- e) Komunitate osoak emaitzak baloratu eta alderatzeko saioa.

Lortutako emaitzak

- Jantoki eta jolastokien kudeaketa-zerbitzuak sortzeko metodologia propioa sortzea, errepikatu daitekeena, gizarte-balioak sustatzeko eta espazio eta dinamika berriak sortzeko.
- Lehengo rolekin apurtu eta rol berriak sortzea, adibidez, Hezilagun. Begirale hutsa izatetik bideratzaile izatera igarotzen da, eta ikasleak ikaskuntza-prozesuan gidatzen ditu, tresnak emanez.
- Mahi-Mahi 6 ikastetxean ezarri dute (beraz, 3.000 ume inguru).
- Mahi-Mahik ahalbidetzen dio Askorari bezeroarekiko harremana sendotzea (ikastetxeak) eta amaierako bezeroarekin harreman berriak sortzea (familiak eta umeak), den-denak esperientziaren sortzaileak izanda.
- 2019an, Gipuzkoako Foru Aldundiak sari bat eman zion metodologia horri, umeekin txikitatik genero-berdintasuna eta ohitura osasungarriak lantzeagatik.
- Service Design Awards lehiaketaren 2017ko edizioan, Mahi-Mahi by Askora hautatu dute, pertsonen zuzendutako zerbitzuaren diseinuan, mundu mailako lau ekimen onenen artean.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak.

Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

Zalao Aldatz (Abusu Ikastolako gerentea)

«Mahi-Mahirekin ikastolarako funtsezkoak diren balioak ezarri ditugu; lan-taldea, elkartasuna edo erantzukidetasuna balioak gure hezkuntza-proiektuan jasota daude, eta orain, geletatik jantokira eraman ditugu».

Patricia (jantokiko zainzailea)

«Jantokiko langileentzat oso garrantzitsua izan da jantokiaren diseinuan lan egitea ikasleekin, familiekin, irakasleekin eta zentroko zuzendaritzarekin».

Innovation Index Score: ★★★★★☆

Lerrotatze estrategikoa: ★★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★★

★

Eragina: ★★★★★★

Aintzatespena: ★★★★★★